Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2752

EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 20koa, Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena. Honen bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduak iragarritako hautaketa-prozeduran hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzearren hautaketa-prozeduratik kanpo geratu diren izangaien behin-behineko zerrenda onartzen da (2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedura deitu zen).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurarako deia egin zen. Agindu horren 2.1.f) oinarriak ezartzen duenez, hautaketa-prozesuan onartua izateko baldintza orokorra da 1. edo 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea. 6.1.2 oinarriak berriz, adierazten du epe bat ezarriko dela 1. edo 2. hizkuntza-eskakizunaren dokumentu baliokide edo homologatuak aurkezteko.

Era berean, Hezkuntzako 1. eta 2. hizkuntza-eskakizuneko probak egiteko deialdia ezartzen du.

6.1.2.5 oinarriak adierazten duenez, eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez dutenek hautatze-prozesutik kanpo geratuko dira, baldin eta 2.1.f) oinarrian aurreikusitako erregimen iragankorra aplikatu ezin bazaie eta proba horretara aurkezten ez badira edo proba horretan «gai» kalifikazioa lortzen ez badute.

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko epea 2011ko maiatzaren 5ean amaitu zen eta Hezkuntzako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdia ebatzita dagoenez,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

2752

RESOLUCIÓN de 20 de mayo de 2011, del Director de Gestión de Personal, por la que se aprueba la lista provisional de aspirantes excluidas/os por no haber acreditado el perfil lingüístico exigido en el proceso selectivo convocado por Orden de 17 de diciembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, para el ingreso en los Cuerpos de Maestras y Maestros, Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, Profesores y Profesoras de Escuelas Oficiales de Idiomas y Profesores y Profesoras de Música y Artes Escénicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La base 2.1.f) de la Orden de 17 de diciembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convoca procedimiento selectivo para el ingreso en los Cuerpos de Maestras y Maestros, Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, Profesores y Profesoras de Escuelas Oficiales de Idiomas y Profesores y Profesoras de Música y Artes Escénicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, establece como requisito general para ser admitida/o al proceso selectivo la acreditación de perfil lingüístico 1 o 2. La base 6.1.2 establece que se fijará un plazo para la presentación de las certificaciones idiomáticas homologadas o equiparadas al perfil lingüístico 1 o 2 de Educación.

Asimismo, establece la convocatoria de pruebas para la acreditación del perfil lingüístico 1 y 2 de educación.

La base 6.1.2.5 señala que las personas que no posean el perfil lingüístico exigido y, no siéndoles de aplicación el régimen transitorio previsto en la base 2.1.f), no se presenten a la prueba o no sean calificadas como «aptas», quedarán excluidas del proceso selectivo.

Habiendo finalizado el plazo para la acreditación del perfil el día 5 de mayo de 2011 y resuelta la convocatoria de la prueba de acreditación de perfiles lingüísticos de Educación,

RESUELVO:

Primero.– Aprobar la lista provisional de aspirantes excluidas/os por no haber acreditado el perfil lin-

Aginduak iragarritako hautapen-prozesuan hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzearren prozesutik kanpo geratzen diren izangaien behin-behineko zerrenda onartzea (2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedura deitu zen).

Bigarrena.– Zerrenda hori argitaratu egingo da Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Interneten dituen helbideetan: http://www.irakasle.net eta http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net.

Hirugarrena.– Bost egun balioduneko epea ezartzea ebazpen honen kontra erreklamazioak jartzeko, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 20a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.

güístico exigido en el proceso selectivo convocado por Orden de 17 de diciembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, para el ingreso en los Cuerpos de Maestras y Maestros, Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, Profesores y Profesoras de Escuelas Oficiales de Idiomas y Profesores y Profesoras de Música y Artes Escénicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Segundo.– Dicha lista se publicará en las Delegaciones Territoriales de Educación y en las direcciones de Internet del Departamento de Educación, Universidades e Investigación: http://www.irakasle.net y http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net.

Tercero.– Contra esta Resolución, se podrá presentar reclamación en el plazo de cinco días hábiles, contados a partir del siguiente al de la publicación de la presente Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de mayo de 2011.

El Director de Gestión de Personal,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.